



El único discurso válido será el pronunciado por el orador en el acto.

Balioa izango duen diskurtso bakarra izango da hizlariak bertan eskainiko duena.

Bakartxo Tejeria (Landako, 2024-1-27)

Alderdikideok, alderdizaleok, abertzaleok, lagunok, eguerdi on!

Bizitzan esker onekoa izan behar da eta nik asko daukat eskertzeko. Eskerrak Alderdiari, Eusko Legebiltzarreko presidentea izaten jarraitzeko nigan izan duen konfiantzagatik. Ohore bat da. Horrela hartu nuen proposatu ninduzuen lehen aldian, eta gaur egun, are gehiago.

Ohore handia da herri burujabetza hartzen duen erakundearen buru izatea. Eta harro nago, Eusko Alderdi Jeltzalearen hautagaitzaren parte izateagatik. Es un orgullo pertenecer al Partido Nacionalista Vasco y formar parte de esta candidatura.

Gaur eta hemen, hautagaien aurkezpen honetan, hori da aldarrikatu nahi dudana: Eusko Alderdi Jeltzalearen eskutik Herri honen alde sinetsi eta lan egitearen harrotasuna. Alderdia euskal nazioa -Euskadi- eraikitzeko tresna gisa sortu zelako.

“Lekuak eta egunak badaude inola ere galdu behar ez dituzunak”. Horrela dio ekitaldi honetarako gonbidapenak. Esaldiak PNVren jarduteko modua laburbiltzen du. Euzko Alderdi Jeltzalea herri honen une garrantzitsu askoren parte izan da, sortu zenetik. Herri honen historiaren protagonista zuzena azken hamarkadetan.

Tenemos una trayectoria que nos avala; una trayectoria que demuestra coherencia y compromiso con este pueblo. Nacimos con un claro objetivo: construir una Euskadi libre, con mujeres y hombres libres. Nuestra ideología se sustenta en tres pilares: la existencia del Pueblo Vasco y su derecho a decidir, la creencia en los valores democráticos y la defensa de todos los derechos humanos, los individuales y los colectivos, y una acción política basada en la justicia social y la igualdad. Esos son los principios que han guiado y siguen guiando nuestro quehacer político.

Junto a los principios, las formas y los medios también importan y definen a una organización. Y el nuestro es un estilo que no ofrece dudas: apostamos por establecer metas posibles, que nos acerquen a nuestro último objetivo. No creemos en la estrategia del “todo o nada”, creemos en el trabajo y en el esfuerzo del día a día. Ideia argiak eta konfiantza osoa dugu euskal gizartean. Ahalegina, konstantzia, gaitasuna,

kemena eta fedea jartzen dugu defendatzen dugun horretan. Hori ikasi genuen gure aurrekoetatik, eta hori irakatsi nahi diegu ondorengoei.

Zume horiekin Herria eraiki eta etorkizuna irabazi dugu. Gaur, Euskadik badu ekonomia, industria, hezkuntza eta giza kapitala etorkizunari aurre egiteko. Eta hori euskaldun guztion artean lortu dugu, PNVren lidergotik, espiritu autokritikoz eta akatsetatik ikasiz.

Lau hamarkada eta erdi hauetan, auzolanean eraiki ditugu Herria eta erakunde demokratikoak. Gizarte zerbitzurako bokazioa duten Herria eta erakundeak, herritarren ongizatea helburu izanik. Gure historiaren sustraietatik datorkigu guztion eskubideak errespetatuz gobernatzea eta, batez ere, guztiontzat gobernatzea. Eta hau autogobernuari esker egin dugu. Bide horretatik jarraitu nahi dugu. Oraindik bide luzea daukagu Euskadi libre hori lortzeko.

Lanean jarraituko dugu herri bezala gure buruaren jabe izan eta euskal herritarren borondatea errespetatua izateko, ilusioz eta ahaleginez proiektuak egia bihurtuz. Askatasuna dugu helburu, etorkizun aske bat. Hori da gure konpromisoa. Eta gure ibilbideak ematen digu bermea. Esperientzia eta berrikuntza uztartzen ditugu.

Imanol, zuk biak ordezkatzeko dituzu: esperientzia eta berrikuntza. Orain zuri dagokizu lekukoa hartzea eta Herri honen gidaria izatea. Zuregan konfiantza daukagu. Ziur gaude lehendakari handia izango zarela. Zure ondoan gara eta izango gaituzu.

Alderdiari eskerrak ematen hasi naiz eta eskerrak emanez amaitu nahiko nuke. Eskerrak asko, lehendakari, zure konpromisoa eta dedikazioagatik. Duela 12 urte herri honen buru izateko erronka zuregan hartu zenuen eta gaur Euskadi hobea utziko duzu. Denbora honetan talde bat osatu dugu: zu Jaurilaritzan eta ni Legebiltzarrean. Eskerrak eman duzun guztiagatik.

Eta eskerrak zuri, Joseba, beti nigan jarri izan duzun konfiantzagatik. Eskerrak talde parlamentarioaren buru izan zaren urte guzti hauengatik. Zurekin politika -politika on egiten ikasi dugu. Zuk irakatsi diguzu, Picassok zioen bezala, "inspirazioa existitzen dela, baina lanean aurkitu behar zaituela". Eta irakatsi diguzu ere lanarekin, borondatearekin eta pazientziarekin, Euskadi aske bat lor dezakegula.

Ez daukat dudarik!

Guztion artean lortuko dugu!

Gora Euskadi askatuta!